

Julio Beobide eskultoreak bere gaztetako irudia egurrean tailatu zuen behin eta berriz. Arteak arteari deituko balio bezala, berak poemak zizelatu ditu, askotan “sukaldean, baratzuri eta tipula usain artean”. Maitasunaren gazi-gozoei inolako muzinik egin gabe, bihotza erdibiturik bizi izan da Euskal Herria eta Venezuelaren artean. Izan ere, erbestearekin ordaindu zuen gaztetandiko abertzaletasuna. *Gernika sutan* izan zen bere lehen poema, hurbiletik jasan baitzuen Gernikako bonbardaketaren eragina. Gerra-garaiko belaunaldiaren lagina, irmotasunik galdu gabe, sentiberatasun izugarria dario emakume ausart eta aurrerakoi honi.



Balendiñe Albizu, Zumaian 1914an jaioa.

Zumaian jaio zen Balendiñe Albizu, 1914ko irailaren 18an. Ama, Manuela Aizpurua, Endañeta baserrikoa zen. Aita, Juli Simon Albizu, itsas-girokoa. “Kresala eta garoa” beraz, jaioterriko bi giroak, familatik datozkio. Zazpi senideren artean seigarrena bera, eta neska bakarra. Aita Gran Solen zen Balendiñe jaiotzean; etxera itzulita, zein izen jarri zioten jakitean, hura nahigabea. Izan ere, berak bazeukan izena neskato harentzat: Ongietorri. Ordurako, Valentina Gabriela izenak ezarriak zizkioten bataioan, aitaponteko eta amapontekoarenak hain zuzen ere, anaia Gabriel eta lehengusina Valentina izan zirenenak.



Jaiotetxea, San Telmo kalean.

San Telmo kaleko etxe eder batean bizi zen familia. Aita itsas-merkataritzako kapitaina zenez, bolada luzeak igarotzen zituen etxetik kanpora; ez zen, ordea, esku hutsik itzultzen. Gizon ikasi eta ibilia, kapitain-titulua Baionan atera zuen. Gran Sol aldera eta joaten zenean, ba omen zituen harremanak abertzale irlandarrekin, eta hango giroa ekarri bide zuen herrira. Juli Simon Zumaiaiko lehenengo abertzaletakoa izan zen eta giro hori erne zuen familian.

Haurtzaro aise eta alaia soma liteke Balendiñeren poemetan. Ordutik geratutako marka beltz bakarra,



Aita, Juli Simon Albizu, itsas-kapitaina.

itsasoari hartutako gorrotoa da.
Beldurak eragindako gorrotoa. Izan ere, hamaikaren bat urte zituela, ia itota atera zuten Balendiñe Itzurungo hondartzatik; neska bihurria nonbait, lehengusina Eskolita Zubiarekin zebilela, bainuzainaren aginduari kasurik egin gabe, uretara sartu eta erresakak ondo astinduta salbatu omen zituzten bi neskatoak. Beldur horrek ez dio eragotzi, haatik, poemak eskaintzea Kantauriri nahiz Karibeari, bizitzan zehar alboan izan dituen bi itsasoei.


Bost urterekin eskolara hasi zenean —herriko Maria eta Jose ikastetxean—, Balendiñek ez zekien gaztelaniaz. Mojetako batek hala esan omen zion hitz-zerrenda luze bat emanda: “lorito” batek bezala ikasi behar zuela hura. Hamabi urterekin bukatu ziren hango kontuak, Aritmetika eta Geografia apur batez jabetuta. Eskolak ase ez zion jakinminak piztuko zion irakurtzaletasuna. Eta errebeldiak akuilatu joera hori. Izan ere, elizako liburuetatik aparte, ezin zen besterik irakurri. Apaizek agintzen zuten horretan eta etxekoek ameto eman. Nobelak irakurtzea pekatu zen. Balendiñek ezkutuan landu behar izan zuen bere zaletasun hori. Victor Hugo, Unamuno, Baroja eta Clarin bere

kuttunen artean. Irakurketaz gozatzeak idazteko gogoia ekarri zuen berekin.



Biotza beti alai
iñoiz ez trixtura,
bere egon gura;
etxetik irten eta,
nun ote ikusiko,
goiko plazan ez dago,
beko kalera jo,
billatzen ez bagera
etxera orduko,
a ze nolako gaba!
detan igaroko.

Horixe Balendiñek hamalau urteko maitasunari eskainitako poema. Adin horretan, hain zuzen ere, hasi zen Balendiñe Julio Beobideren modelo izaten. Lehenengo egin zion tailan Balendiñe buruan zapia jantzita ageri da, baserritarren estilora. Izan ere, Albizuren aurpegia euskal tankera betekoa baita: zeinu markatuak, sudur eta kokots irtenak, masaila altu beteak... Beobide eskultoreak etengabe bilatu eta landu zuen euskal eredu horri erabat egokitzen zitzaiena. Kaoba egurrean egina da eta Zuloagak margotua. Zumaiaiko Kresalan ikus daiteke, Beobideren tailerra izan zen museoan. Badira bertan Balendiñeren beste irudi batzuk eta beste bi Albizutarrenak, osabarena eta Joxe Kutx anaiarena.



Balendiñe hamalau urterekin hasi zen Julio Beobideren modelo izaten.

Beobideren tailerra, horixe Balendiñe gazteari “beste dimentsio bat” zabaldu zion atea. Arteak garaiko ohitura eta bizimoduaren estutasunari ihes egiteko aukera ematen zuen han, hainbat jende interesgarriekin harremanetan. 1927an eraiki zuen Beobidek bere lantoki hori, ibaiaren ezkerrean, itsasotik bertan; *Kresala* izena Domingo Agirreren eleberriaren omenez ezarri zion. Izan ere, Agirre, Zumaian aldi batean apaiz egona, laguna zuen eskultoreak. Kresalaren parean, berriz, ibaiaren eskuinaldean, Ignacio Zuloagaren etxea dago. Arteak ibaiaren alde batetik bestera jauzi egiten zuen han, bi bazterrak

lotuz, izan ere, Beobideri Zuloagak margotzen zizkion zurezko eskulturak, polikromiaz nahiz argizatze hutsez.



Kresalako sarreran. Toki horrek "beste dimentsio bat" zabaltu zion Balendiñe gazteari.

Balendiñek, 1979an Zumaiak Beobideri egin zion omenaldirako idatzi zuen poeman, honela gogoratzen du Kresala:

Atarian "Txeru" txakurra
zaunkaka bitsa zeriola;
zein urreratu arengana?
Kate luzeaz lotuta,
bazter guzik apur bearrean,
arek ateratzen zuen zarata!
Kresalan sartzeak
bazuen bere lana.

Lehenengo taila horren ondoren,
Beobidek behin eta berriz modelatu
zuen herrikidearen aurpegi ederra.

Busto bat amaitzeke geratu zen eskultorearen tailerrean, Balendiñek gerratik ihesi herritik alde egin behar izan zuenean. Gerora bukatu eta Balendiñeri oparitu zion egileak. Egurrezko taila ederra da oso, besoekin mugimendua adierazten duena, gaztaro betean dagoen emakume gordin eta aldi berean egina isladatzen du.



Osaba baten tailaren ondoan.

Kresalako kontu horiezaz gain, gaztaroa batzokiko giroan murgilduta zerman Balendiñek. "Batzokia, hura zen gure etxea." Zer egiten zuten han? Esate baterako, antzerkia. Joxe Etxabe Udaletxeko idazkariak zuzentzen zuen batzokiko antzerki-taldea, eta hark begiko zuen oso Albizunekoa. Neska ederra, taula

gainerako lotsarik gabea, ahots sendoa, hizkera argia... eta etorria, batez ere bere anaia Joxe Marirekin, xelege hutsa, inprobisatzen aritzen zenean.



Getarian, hamazortzi urterekin. Balendiñe erdiko ilaran ageri da, ezkerretik hasita seigarrena.

Batzokiko giroa ez zen antzerkira mugatzen. Hor zegoen konpromezu politikoa eta horrek eskatzen zituen ekintzak. Balendiñek gogoan du, Errepublika-garaian, Donostiara ekitaldi politikoren batera joan eta “pitxi” izeneko poliziekin izandako iskanbila bat. Poliziek “¡Mueran los



Beobidek bilatu zuen euskal ereduaren adierazgarri zen Balendiñe.

vascos!” oihu egin omen zuten. Zumaiairak erantzun “¡Muera España! Gora Euzkadi askatuta!”.

Neska ernea eta ausarta behar zuen izan, garaiko ohituren itomenari ihes egiten ziona. Ama, egunero mezetara joaten zen horietakoa: Balendiñe elizara bidali eta leihotik zelatan egoten omen zen; elizara sartu ate batetik, eta bestetik irten moilara alde egiteko. Gorputz eta bihotz gazteak eskatzen zutenaren eta giro itxiak ezartzen zituen mugen arteko kontraesana argi eta garbi adierazten du Balendiñek *Denbora ura* izeneko poeman:

Beko plazan musika ederra,
gazteak dantzan ari dira,
ta ni etxean, erdi negarrez,
leiotik kalera begira.
Gabeko bederatziak oraindik
ta nere gurasoak onela diote,
ordu onetan neskak onak
etxean egon bear dute,
gazteak Angelusakin batera
etxeratu bear dezute.



Hiru Albizutar Kresalan: Balendiñe anaia Joxe Kutz eta osabaren irudiekin.

Gaztaroa laister goibeldu zitzaion Balendiñeri. Gerra aurrera zihoala, frankotarrak Donostiaz jabetu ziren eta 1936ko irailaren 21ean, itsasuntzi bat hartu zuen jaioterrian eta Ondarroara jo. Emakume bakarra zen berrogeiren bat gizasemeraren artean; berarekin zihoazen lau anaia: Nikolas, Joxe Mari, Joxe Kutx eta Josu. Berehala, ordea, elkarrengandik galdu eta sakabanatu ziren. Eta horrela, lehendik ezaguna zuen Ixaka Lopez Mendizabal tolosarrarekin, Bilbora abiatu zen. Han, Sabin-Etxean, ezagutu zuen Juan Manuel Bilbao, Mundakako Junta Municipal-eko presidentea, eta honek bere herrira lanera joatea eskatu zion. Han aritu zen Balendiñe, lehenengo batzokian eta gero mojen komentuan, Amaiur batailoiko gudariei laguntzen: jaten eman, arropak garbitu, txukundu, laguntasuna eskaini... frentetik zetozen haiei atsedenaldea leuntzen. Gudari gipuzkoarrengana hurbiltzen zen gehienbat, “itsasaldeko mutilak, Getariakoak eta”.

1937ko apirilaren 26ak Gernikan harrapatu zuen. Lagun batzuen bila joanak ziren. Hegazkinak azaldu eta bonbak lehertzen hasi zirenean, kotxea utzi eta lubaki batean gorde



Balendiñek herritik ihes egin behar izan zuenean amaitzeke geratutako bustoa.

behar izan zuten.

Mundakara itzuli eta Queipo de Llanori irratiz entzun zionean euskaldunek kiskali zutela Gernika, Balendiñe suak hartu zuen. Horri irtenbidea eman ez idatzi zuen bere lehen poema, *Gernika sutan*, alde guztietara zabaltzeko nahi lukeen deiaz amaitzen duena:

Munduko erriak, arren,
begiak ireki itzatzute!


Gerrak aurrera segi zuen ordea, eta Balendiñe eta bere lagunak Mundaka utzi eta Bilbora jo behar izan zuten laister. Hiri hau galdutakoan berriz, Santanderrera. Eta hantxe, Jauralaritzak Sardinero gainean zeukan etxean ezkondu zen, 1937ko azaroaren 6an, Juan Manuel Bilbaorekin. Lanestosan osatu zituzten ezkontza zibileko





Kanbon,
ezkonberritan, Jose
Manuel bilbaorekin.

Gerra amaiturik baldin bazen ere, haren ondorioek indarrean zirauten. Balendiñe beldur zen herrira itzuli ezkeru kartzelaratu egingo zutela. Eta honela, senarrarekin batera, Venezuelarako bidea hartu zuen. 1940ko martxoaren 13an irten ziren Marseillatik eta maiatzaren 5ean iritsi La Guairako portura. Tartean ia bi hilabeteko bidaia, gogorra batzuetan, itsasoa haserretu eta salbamendu-jakak soinean jarri behar izaten zituztenean. Edo Panamara iritsi eta Italiako faxisten *Virgilio* itsasuntziarekin topo egin zutenean. Altzoan, hilabete gutxiko semea. Eta zaintzaile berezia harentzat: bidaiakide zuten gizon beltz bat, amak semea besoetan hartzen utzi zionean munduko zoriontsuena zirudiena.



Venezuelara eraman zituen itsasuntzian, gizon beltza Balendiñeren semea, Josu, besoetan duela.



La Guairara iristen, Jose Manuel Bilbaorekin.

Caracasera iritsi zireneko hartatik, Balendiñeri sekula ahaztuko ez duen oroitzapen bat geratu zaio: ogi-otar bat mahai baten gainean. Bere xumetasunean ogi-otar hori besozabalik hartzen zituen herrialde eta bizitza berriaren sinbolo bihurtu zitzaion.

Venezuela gerra osteko euskal emigrante politikoen aterbe

nagusienetako bat izan zen. Harreman onak zeuzkan Jaurilaritzak hango agintariekin, eta euskaldunen ospean oinarrituta, harrera paregabea egin zieten hemendik ihesi zihoazenei. Herrialde hark, gainera, aukera anitz eskaintzen zion garai hartan lanerako trebe eta ekintzaile izan zitekeenari. Balendiñek eta senarrak, Zuriñe izeneko hotela hartu zioten,

Caracasen, negozioa uztera zihoan kapitain bati eta Zumaia izenez bataiatuta, ekin zioten ostalaritzari. Hura izan zen, nolabait, lehen euskal etxea Caracasen. Pilotaleku eta guzti hornitu zuten, bilera-toki erakargarria izan zedin aberkideentzat.

1943an Balendiñek bigarren semea izan zuen, Imanol. Urtebetera Ciudad



Venezuelako euskaldunen *Euzkadi* aldizkarian eta beste batzuetan aurki litezke Albizuren poemak.

Bolivarrera joan ziren bizitzera, eta 1957an itzuli zen berriro Balendiñe Caracaserara, oraingoan beste hotel bat jartzeko, Bilbao izenekoa. Ez zen denbora asko pasa lehen senarrarengandik banandu zen arte. Haustura horrek ekarri zion buruhausterik, izan ere garai hartan dibortzioa gaizki ikusita zegoen. Albizuren poemetan geratu da banaketaren oihartzunik, samina agerian, baina ez gizartearen lege estuei amore emanez, maitasun-istorio baten amaierak berekin dakarren minarengatik baizik.

Rafael Calvo Leturia izan zuen bigarren senarra. Gerratik ihesi joandako donostiar honekin seme bat eta alaba bat izan zituen: Asier eta Goiz-Eder. Bitartean, herriarekiko loturak inolaz ere hautsi nahi ez eta, Balendiñek Zumaiara bidali zituen bi seme zaharrenak, amamaren etxera, ikasketak hemen egin zitzaten. Bera ere etorri ahal izaten zen, baina bizitza han zeukan moldatua, Venezuelan.



Ciudad Bolívarren, Josu eta Imanol semeekin.




Nere olerki txorta, lehen liburua, Zarautzen 1972an argitaratua.

12



Arestiren omenezko argitalpenean Balendiñeren *Larraitz*, *Akelarre biurtu ote?* poema jaso zen, gazteekiko zeukan jarrera irekiaren erakusle.



Caracasen, bigarren senarra izan zuen Rafael Calvo Leturiarekin.



Caracasen, senitartean. Beheko aldean Goiz Eder alaba ageri da.

Venezuelako euskal emigranteen taldea ekintzailea zen oso. Horretan izan zuen zerikusirik, zalantzarik gabe, bertara bildutakoak nortasun politiko nabarmenekoak izateak eta kultura aldetik jantziak asko. Eusko Etxearen inguruan berehala hasi ziren ateratzen argitalpenak. Horietako batean azaldu zen lehen aldiz inprimaturik Balendiñeren poema bat, *Ez izutu aurtxo neria* izenekoa, bere seme Imanoli eskeinia. Ciudad Bolívarren bizi zela, *Euzkadi* aldizkariaren lehiaketa batera aurkeztu zen eta bigarren geratu, Juan Antonio Irazusta politiko eta idazle tolosarraren atzetik. Aldizkari horretan eta Venezuelako euskaldunek kaleratzen zituzten gainerakoetan —*Euzko Gaztedi*, *Sabindarra* eta *Irrintzi*, besteak beste— daude barreiatuta bere poemak. Gainera, Eusko Etxean egiten ziren ospakizunetan, ez zitzaion aukerarik falta izan bere idatziak jendaurrean azaltzeko: festaren bat zela, Aberri Eguna, euskararen aldeko egunak, halako Euskal Herrira itzultzea edo handik etortzea... Balendiñek beti zituen prest bertsoaren batzuk okasio horietarako. Euskaltzaletasuna eta abertzaleatasuna darien lanak dira, berak “Euskadiko zortzigarren herria” esaten dionaren


suari piztuta eusteko eginak, beroak, zuzenak, formari baino mezuari gehiago erreparatzen diotenak.

Venezuelatik aireratzen zen Euzkadi Irratian ere parte hartzen zuen zumaiarrak. Saio horietan, jakina, idatziaren indarrari Balendiñeren ahots sendoa eta hizkera zuzen eta argia gehitzen zitzaion, erresistentziaren propaganda-lanetarako egokia oso. Izan ere, Balendiñek, beste euskaldun atzerriratu askok bezala, ez zuen eten Venezuelan, urteak aurrera joan arren, politikarekiko konpromezua. Gerra-garaiko belaunaldiak erreleboa izan zuenean, Euskadi Ta Askatasuna erakundearen lehen urteetan, Venezuelan aterbetutako errefuxiatu-talde berriari babesa eskaini zion. Caracaseko bere etxean hartu ohi zituen, eta paperak egiten lagundu. Poesietan geratu da garai horietako oihartzunik.

Urtetan zehar, Franco hil ezkerotik, Euskal Herria eta Venezuelaren artean bizi izan eta gero, 1995ean behin betirako kokatu zen jaioterrian; bertan zituen bestalde, bi seme zaharrenak. Venezuelan geratu ziren, ordea, seme-alaba gazteenak, biak Unibertsitateko irakasleak, Asier Arkitekturan eta Goiz-Eder Filosofian: “Horixe da gerra

madarikatuak utzi didan azken
hutsunea, erbestean gelditu diren
seme eta alabarena”.

14



Abertzaletasuna da Balendiñeren bizitzako ardatzetako bat, poemetan isladatzen den bezala.

Erbesteak lapurtu dio besterik ere Balendiñeri, adibidez herrikideen artean ezagunagoa izateko aukera. Izan ere, 1972ra arte ez zen bere lanik argitaratu Euskal Herrian. Urte horretan *Zeruko Argia* astekarian bere poesia bat azaldu zen: *Nere erritar maiteai* eta ordukoa da bere lehen liburua, *Nere olerki txorta*, Zarauzko Itxaropena moldiztegian inprimatua, Sabin Irizar idazlearen hitzaurreaz. Handik hamabi urtera, 1984an, Aita Santi Onaindiak beste liburu bat argitaratu zion, *Olerkiak* izenburupean. Hiru zatik osatzen dute: lehena, 1972ko liburua jasotzen duena; bigarrena, *Nere bideetan*, 1974an Caracasen liburutarako prestatu baina inprimatzera iritsi ez zena, Andoni Arozenaren hitzaurreaz —lasartear hau, gerra osteko aterbetua bera ere, euskaltzaletasunaren zutabeetako bat izan zen Venezuelan—; liburuaren hirugarren zatia berriz, *Nere biotz-dardarak*, Aita Onaindiak egindako olerki-aukeraketa da, Caracaseko aldizkarietan argitaratuetatik nahiz eskuizkribuetatik. Hauxe da beraz, Balendiñeren obra ia osorik biltzen duen liburua. Poema laburrak dira beti ere, hizkuntza lantzeari baino sentipenak espontaneitatez adierazteari gehiago begiratzen

diotenak. Euskara, batasuna egin aurrekoa darabil Balendiñek, gipuzkera nagusiki, bizkaieraren ukituren bat somatzen bazaio ere tarteka.

Liburu horretatik at, Balendiñeren poema bat aurki liteke argitalpen berezi batean, hain zuzen ere 1978an Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak kaleratutako *Agiriak, Euskal poetak eta artistak Gabriel Arestiren omenez* izeneko liburu mardulean. Han, *Larraitz, Akelarre biurtu ote?* izeneko poesia jaso zen, 1971n idatzia. Badu bere istorioa poema honek. Larraitzen gaupasa erraldoi bat antolatu zen, *Ez dok amairu*-ren eskutik, garaiko kantari eta talde sonatuenekin. Gauza da eztabaida izugarria sortu zuela jaialdi horrek, batez ere moralaren aldetik zer izango ote zen, hainbeste gazte gauez han bilduta... Balendiñek, beste batzuetan bezala, gazteen alde egingo du, jaialdiari zentzu mitologikoa emanez:

Nora zoaz Amagoia?
 Larraitz mendira!
 Illargi betea degu ta...
 nere semeak an
 bilduko dira.
 Ez naute ikusiko,
 beren biotzetan
 naiz sartuko,
 aztuko ez duten
 gau zoragarri ontan
 bear duten zoriona emateko.

Horixe poemaren hasiera.
 Balendiñeren belaunaldiko batek
 gazteen jokabidea ulertzea harrigarria
 gertatzen zen urte haietan. Agian
 Karibeak jaioterritik zeraman ikuspegia
 are eta zabal eta koloretsuago bihurtu
 ziolako erakusten zuen jarrera ireki
 hori. Horren lekuko, olerkietan aletzen
 joan den bizipen eta burutazioak.



Aita Onaindiak argitaratu zuen 1984an,
 Balendiñeren obra ia osoa biltzen duen
Olerkiak liburua.

Maitasunaren arlo eta mota guztiak jorratu ditu Balendiñek bere poemetan. Seguraski, *Bi alderdi ditu maitasunak* izeneko poeman dioen bezala, sinisten duelako: "...bizitza bera dala/ oro maitasuna!", edo, beste baten izenburuan dioenez, *Maitasuna da bearren*. Maitasuna, ama den neurrian, eta gero, amama izatean, bilobekiko. Maitasuna baita atzerantz, bere ama eta amamarekiko, eta aldamenetara ere, senide eta lagunetikiko.

Balendiñek ez du erreparorik maitasun-aitorpenak behin eta berriz egiteko. Beharbada herritik urrun izateak, bihotza erdibiturik, areagotu egiten dio behar hori. Eta Karibeko gozotasunak, Euskal Herriko zurruntasunarekin zerikusirik ez, lagundu egiten dio sentipenak ozenki adierazten. "Matte" Balendiñeren ezpainetatik erraz jaulkitzen den hitza da. Horrela izanik, nola ez, bikotearekiko amodioa du gai poema asko eta askotan. Lehen liburuko *Nere biotzeriak* izeneko zatian daude bilduta poema hauetariko gehienak.

Izenburuak aski esanguratsuak gertatzen dira: *Zure begiak*, *Nere maitale*, *Zu ta ni bakarrik...* Baina berehala, behin eta berriz, azaltzen dira maitasunaren penak ere: *Urruti zaude*, *Nola bizi orain?*, *Zalantza...*

Gordin azaltzen ditu poetak sentipen horiek:

Nere burura etortzen dira
oldozmen eta amets txarrak,
beste batekin ote zabiltzan
jabetzen nau bildur ikarak.

Bildur hori egia bilakatuko da,
maiteak ametsetan beste baten izena
esatean, eta poetak ezjakinarena
egingo du behin:

Ala ere maiteko zaitut
bizitza guzian,
ez det esango nagola
jakinen gañian.

Ez da, orde, beti hala izango.
Maitasuna epeltzen doala ikusiz,
samina, negarra eta zalantzak;
horiekin batera, beste bide bat
hartzeko erabakia. Izan ere,
poetarentzat, ezinezkoa da
desamodioan, hozkerian, bizi izatea:

Apurtu edo ausi
orrela ezin bizi!
Ozkerian bizitzea
ez baidu merezi!
Obe nor-bere bidean
bizitz berri bat asi.

Bizitzari behin eta berriz ekiten
zaildua dago zumaiarra. Nola
maitasunean, hala beste arloetan ere.
Beti, hori bai, pasioz dastatuz argitzen
den egun bakoitza.

Balendiñek bizitzaren arlo guztietan erakusten duen pasio hori politikaraino zabaltzen da. Politika herrigintza modura ulertuta, ez taldeen arteko joku bezala. Poema asko eta asko ditu idatziak gai politikoen inguruan, harrigarria ez den gauza bere ibilbidea kontuan hartu ezkeror. *Gernika sutan* hartatik hasi eta zenbat eta zenbat poema ez dio eskaini bere belaunaldia markatu zuen gertaerari, gerrari. Hala ere, Albizu ez zen garai horretan trabatu eta etengabe izan ditu ahotan Francoren kontrako erresistentziako gertaera, ospakizun, mugimendu eta pertsonaiak. Aberri Egunak, Burgoseko auzia, Manuel Iruxori Caracaseko Eusko Etxean egindako omenaldia, Francok 1975ean agindutako fusilamenduak... urtetan zehar horiek denak pasa dira Balendiñeren bertsoetatik.

Bere ikuspegiari kalifikatibo bat jartzekotan, lehenengoa hauxe: abertzalea. Abertzaletasun horrek derrigorrezkoa du euskaltzaletasuna, eta hortik hizkuntzaren inguruan ere mamitutako hainbat idatzi. Ezkerrerako joera aitortzen dio Albizuk bere buruari, eta gerra bizi izan zuen belaunaldiko beste asko ez bezala, geroztik sortutako mugimenduetara

zabalik egon da. Hala ere, ez du abertzaletasuna beste joera batzuekin nahastu nahi. Honetan argigarria gertatzen da Venezuelen ETako sortzaileekin izan zituen harremanaz kontatzen duena: lagundu egin zien hasieran, harik eta jakin zuen arte gazte haiek abertzaletasunaz gain komunismoa ere aldarrikatzen zutela.

Nolanahi ere, Balendiñeren abertzaletasuna arrazonamendu politikotik baino areago sentipenetan oinarritzen da. Mitologiara joko du zenbaitetan —Larraitzi buruzko poema kasu—, eta zirkinik gabe goratuko ditu gudariak nahiz geroagoko militanteak. Jarrera ekintzailea eskatuko die, gainera, aberkideei. Ia bizitza osoa erbestean daramanaren ahotsa da, mitinlari tankera hartzen duena sarritan, odol eta hitz berokoa.

Hori bai, etorkizunera begira eta Euskal Herri askea beti buruan, Europa batuaren alde azaltzen da aspalditik, Jose Antonio Agirre Lehendakariari planteamendu horren berri entzun zionetik. Badio poema bat eskainia gai honi. Gainerantzean, Balendiñek ez du bere burua inolako talde politikori lotua ikusten, baina “gauzak zuzendu beharra” dagoela uste du. Bere sinesmen eta jarrerak

herriarekiko maitasunean daukate
sustraia, eta sustrai horrek Zumaian
dauka tinkatuta aingura.

19



Manuel Iruñi Caracaseko Euskal Etxean egindako
omenaldian errezitatzen.

San Pedro bezpera gaur;
gogoratu naiz esnatzean,
ta, begiak malkoz bete zaizkit,
poza ta pena, biak batean.

Erbesteratua eta herrimina
banaezinezko bikotea da nonahi.
Balendiñe ezin salbuespen izan
horretan eta bere jaioterriko bazter,
festa eta pertsonaien oroitzapenak
izango ditu hizpide sarritan, haur eta
gaztaroko oroitzapenak azken batean.
Itzurungo hondartza, Arritokietako
Ama Birjiñaren ermita, kostaldeko
herrietan ezinbestekoa den moila...
horiexek eszenarioak. Pertsonaietan,
arrantzaleen artean mitiko izatera iritsi
zen Aita Mari, Donostiako kaian
hainbat marinel salbatuz bizia eman
zuen. Baina Balendiñek ez dio
muzinik egiten jende xumeagoari ere,
eta sinpatia izugarritz deskribatzen du,
adibidez, Petra Txorua, berak dioen
bezala herri guztietan izan ohi den
xelebrea. Gertaeretan, festak ditu
batez ere gogoan Balendiñek, hala
nola San Pedroak edo bere kaleko
San Telmoak, eta, nola ez, gabonak.

Jaioterriarekiko herrimina Euskal
Herri osora hedatzen da Albizurengan.
Ez bakarrik *Erri mina* izenekoan —ezin
falta izenburu hori—, baita beste
batzuetan ere. Andoni Arozenak

aipatzen duen “Caracasko udaberri
etengabea”, Euskal Herriko
urtaroetako bakoitzari eskainiko dio
poema bana Balendiñek. Urte-sasoirik
gogokoena, aitortzen du, udazkena da
beretzat, itun eta ekaiztsu oroitzen
badu ere:

Itxasoa minberaturik
irentsi naiez ezinda asetu,
itxasontziak daude loturik
bildurrez, ez ditzan xetu.

Ekaitzak uzten dio ordea tokia
eguzkiari, Balendiñek hotza baino
nahiago duen horri:

Kiñuka azaltzen da eguzkia,
zergaitik zabiltza ziriketean?
ez ezkutatu zure aurpegia,
gure poz zera ta egun auetan.

Herriminak ez dio galarazten
Balendiñeri aterbe eman zion
herriarekiko zorra aitortzea, eta biak,
Euskal Herria eta Venezuela, lotzen
ditu *Carabobo’ko burruketa, guda
eresia* izeneko poeman. Ezin ahaztu
Simon Bolibar, Venezuela eta beste
zenbait herrialderen askatzailea,
euskal jatorrikoa zela. Caracaseko
Avila mendia, eta beronen gainean
dagoen gurutzea, behin baino
gehiagotan azaltzen zaizkigu bere
idatzietan. Dena den, Venezuelako
bazterrei eskaintzen dien poemen

artean aipagarria Orinoco ibaia
deskribatzen duen hura, 1945ean
Ciudad Bolivarren idatzia. Hona
amaiera:

Diamantezko dizdirakin
eguzkiak urdin zaitu apaintzen,
gero, urrezko margo zoragarriakin
illunabarrean zaitu biltzen,
biok bat eginda, maitaleak lez
itxasoan zerate ezkututzen.

21



Herriminak ez dio galarazi aterbe eman zion
herriarekiko zorra aitortzea, Orinoco ibaiari
eskainitako poemak erakusten duen bezala



Herriminak eragin dizkio Balendiñeri poema asko eta asko.
1995ean itzuli zen Zumaian bizitzera, ia hirurogei urte
iraundako erbestealdiari amaiera emanez.



Balendiñek sarritan astindu du luma bizitzan zehar, hurbil nahiz urruti, lagun izan dituenak omentzeko. Edo miretsi duen jendea goraipatzeko. Sorta zabala da, pertsonaien galeria bat osatzeko adinakoa. Julio Beobide eskultorea, Sabin Irizar idazlea, Ixaka Lopez Mendizabal, Eli Gallastegi, Joseba Eloseggi, Aita Santi Onaindia, Norbert Tauer euskalari txekiarra, William Douglass antropologo iparramerikarra... eta baita Joan Manuel Serrat kantaria ere. Sail honen ereduari erabat erantzuten ez badio, ezin aipatu gabe utzi *Oteiza* izenekoa, 1973an Caracasen idatzia:

Oteiza´ren utsean
zer ote?
Sumakorra da
bere izate,
utsean dena
berak du askatu.
Ai bere oarmena
bagendu!



Caracasen, senitarteko baten ezkontzan.

Gaztaroko pasadizoetan ageri bezala, Balendiñe ez da emakume elizkoia izan, baina horrek ez dio kentzen tarteka erlijiozko gaiak erabiltzea, edo berak dioen bezala, metafisika. Jainkoari zuzenean mintzatzen zaio poeta, batzuetan eskariak egiteko eta hurrena esker ona azaltzeko. Balendiñeren Jainkoak ez du irudirik, baina hilezkorra da, eta errebelatu egiten da gainera poeta Jainkoa hil egin dela diotenen kontra.

Ikuspegi morala berriz agindu batean oinarritzen da beretzat: lagun hurkoa maite izatean. Gainerantzean, sarritan somatzen da poemetan bizipoza, egunerokotasunetik ateratako bizipoza. Egunsentiari bezala kantatuko dio atariko zuhaitzari, edo Goiz Eder izeneko Caracaseko bere etxeari. Tarteka bakarrik azaltzen da poeta etsipenak jota, normalean baikortasuna nagusitzen da beregan, nahiz eta, adibidez, bizitzaren laburra izan idazgai: “Ikasi bizitzaren muiñ guzia/ zurkatu ta gozatzen!”

Bizitzaren aurreko bere jarrera baikor hori erarik borobilenean biltzen duena, 1983an idatzitako *Nereak egin du* izeneko olerkia litzateke:

Urtearen zigor!
Nai ta naiezkoa,
sagar gorri ederrak
zimeltze alakoa:
oñak astundu,
bizkarra okertu,
ilea zuri;
ala ere maite ditut
lur eta bizia,
ez baita alperrik izan
jaso ta ikasi detan
ezaupidia.

23



Venezuelako Margarita uhartean, Imanol semearekin.



Bizipoza darie Albizutarren poemei, bizitzaren gazi-gozaok gora-behera.



Goiz Eder etxean, Zumei biloba besoetan.



Hirurogeita hamar urte Balendiñe eta bere tailaren artean, Beobideren autoerreturatua lekuko



"...Oñak astundu, bizkarra okertu, ilea zuri; ala ere maite ditut lur eta bizia..."